

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

5120

317/2024 DEKRETUA, urriaren 29koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena–, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sail-egitura berrantolatu da, eta Administraziooko sailei eskumenak berresleitu zaizkie, legegintzaldi honetan gobernu-programa osatzen duten konpromiso guztiak ahalik eta eraginkortasunik handienarekin burutzeko.

Aipatutako dekretuaren 2. artikuluan ezartzen denez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saila Eusko Jaurlaritzaren organigramaren parte da, eta haren 9. artikuluan xedatzen diren egitekoak eta jardun-arloak izango ditu. Horrez gain, azken xedapenetako lehenengoan eskatzen da sailak egituratzeko erregelamendu organikoak egiteko, betiere bertan zehaztutako antolaketa-irizpideekin eta aurreikuspenekin bat etorritz.

Sailak lau sailburuordetza ditu: Erakunde Harremanak; Araubide Juridikoa; Enplegu Publikoa, eta Administrazio Digitala eta Zerbitzu Orokorrak; eta, era berean, sailburuordetza horiek zuzendaritzaka antolatuta daude, bakoitzaren arlo espezifikoaren arabera.

Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza instituzioen arteko, Legebiltzarrekiko eta Arartekoarekiko harremanez eta komunikazioez arduratzen da. Halaber, bereak dira Jaurlaritzaren Idazkaritzaren egitekoak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari dagozkionak. Berari dagozkio, halaber, toki-administrazioaren arloan legeek eta araudiek Jaurlaritzari esleitzen dizkieten administrazio-egitekoak; batez ere, toki-araubidearen arloan Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorren eskumenekoak diren gaiei buruzko txostenak egin eta ebazpenak ematea. Azkenik, bere eskumenekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen, elkarten, sozietate zibilen eta elkargo profesionalen arloan legez esleitutako eginkizunak betetzea. Sailburuordetza horri dagokio, gainera, gobernu irekiko politikak bultzatzea, zuzentzea eta koordinatzea; besteak beste, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea. Era berean, jardun publikoan gobernu ona eta politika publikoen ebaluazioa bultzatu, zuzendu eta koordinatzea dagozkio, Euskal Gobernantza Publikoaren ereduaren esparruan. Bere eskumena da, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egitura antolatzea.

Araubide Juridikoaren Sailburuordetza Administrazioaren zentro aholku-emaille gorena da, eta bertan kokatzen da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Zentrala, zeinak judizioan Administrazioa ordezkatzeko eta defendatzeko duen. Honako hauek dagozkio: Autonomia Estatutua defendatzea; barneko arauak kontrolatzea; lege-garapenaren eremuan jardutea, euskal zuzenbide zibila kontserbatzea, egokitzea eta garatzea barnean dela. Gainera, berari atxikiko zaio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren kide anitzeko organo aholku-emaille gorena.

Enplegu Publikoko Sailburuordetzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoan giza baliabideen politika planifikatu, zuzendu eta koordinatzea, etengabe garatzen ari diren kalitatezko zerbitzu publikoetatik eratorritako beharrezan erantzuteko. Horretarako, langileen arloko politika landu,

gidatu eta gauzatuko du, eta langileen araubide juridikoaz eta ordainsari-erregimenaz arduratuko da, bai eta, oro har, langileen arloko ohiko kudeaketaz ere. Hauek ere badagozkie: prestakuntza-arloko jarraibideak prestatzea, langile lan-kontratudunen eta funtzionarioen ordezkariekin harremana eta negoziazioa, eta arriskuei aurre hartzeko zerbitzuak eta lan-baldintzak hobetzeko izaera sozialeko bestelako zerbitzuak kudeatzea. Azkenik, langileen eta zerbitzuen arloko Ikuskaritza Nagusia ere badagokio.

Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorraren Sailburuordetzari agintzen zaio zenbait araubide orokor zuzendu eta ikuskatzeko; zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak arlo hauetan dituen eskumenen ondorioz sortutako araubide orokorrak: estrategia eta eraldaketa digitala, informazio-sistemak, telefonia, sareen azpiegiturak eta zerbitzuak edo telekomunikazioak. Horrez gain, sailburuordetza horri dagokio berrikuntza publikoa sustatu, zuzendu eta koordinatzea, bai eta, bereziki, Administrazio eta gobernu elektronikoak ere, Euskal Gobernantza Publikoaren ereduaren esparruan. Era berean, herritarrei arreta zentralizatua, kanal askotarikoa eta kalitatezkoa emateko euskarri diren proiektuak kudeatu eta gauzatzea ere badagokio. Bere eskumena da, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren prozedurak antolatzea. Azkenik, honako hauetaz ere arduratzen da: administrazioaren eraikin eta egoitzei buruzko politikaz; normalizazio- eta homologazio-egitekoez; hainbat sailtako eraikin eta zerbitzuen kudeaketaz; Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren artxibo-sistemaz; eta argitalpenez.

Azkenik, eta zuzenean sailburuaren mende, Autogobernu Zuzendaritzak laguntza ematen dio autogobernuaren eta estatutuaren garapenaren arloko politika zuzendu, bultzatu eta garatzeari dagokionez, eta, ildo horretan, estatuarekiko eta beste lurralde-ente batzuekiko harremanak eta horrek dakarren transferentzia-prozesua antolatzen ditu; Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza zuzeneko laguntza ematen dio bere karguaren arabera dagozkion eginkizunak betetzeko; eta Zerbitzu Zuzendaritza saileko gainerako organoei laguntzeko organoa da, saileko arlo gutxiei dagozkien gaietan.

Ondorioz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartuta, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko urriaren 29ko bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

ANTOLAKETA OROKORRA

1. artikulua.– Egitekoak, jardun-arloak eta eskumenak.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitekoak eta jardun-arloak zehaztuta daude Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9. artikuluan. Horretaz gainera, honako artikulua hauetan bildutako eskumenak izango ditu.

2. artikulua.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura orokorra.

1.– Aurreko artikuluan aipatu diren eskumenak betetzeko, honako organo hauek izango ditu Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailak:

1.1.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua:

- a) Zerbitzu Zuzendaritza.
- b) Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.
- c) Autogobernu Zuzendaritza.

1.2.– Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza:

- a) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.
- b) Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.
- c) Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritza.

1.3.– Araubide Juridikoaren Sailburuordetza:

- a) Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.
- b) Auzibide Zuzendaritza.

1.4.– Enplegu Publikoko Sailburuordetza:

- a) Enplegu Publikoko Zuzendaritza.
- b) Lan Harremanen Zuzendaritza.

1.5.– Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorren Sailburuordetza:

- a) Estrategia Digitalaren Zuzendaritza.
- b) Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza.
- c) Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

2.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailari atxikita edo lotuta daude, beren sortze-arauetan ezartzen den moduan, honako organo hauek:

a) Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legekoa –Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuan araututa dago–.

b) Fundazioen Euskal Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legekoa.

c) Enplegu Publikoaren Euskal Kontseilua, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak sortua eta arautua.

d) Enplegu Publikoa Koordinatzeko Euskadiko Batzordea, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen bidez sortua.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko Enplegu Publikoaren Batzorde Intersektoriala, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen bidez sortua.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta organismo autonomoetako Lanpostuen Balorazio Batzordea, apirilaren 12ko 80/2005 Dekretuaren bidez sortua eta arautua.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan zerbitzuak egin zituzten langileen eskubide profesional eta pasiboak aplikatzeko Batzordea, maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintzako Dekretuaren bidez arautua, eta irailaren 20ko 193/1983 Dekretuaren bidez garatua –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan zerbitzuak egin zituzten langileen eskubide profesional eta pasiboak aplikatzeko Batzordearen osaerari buruzkoa–.

h) Koordinazio Juridikoaren Batzordea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legekoa.

i) Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen bidez sortua, zeinaren estatutuak urriaren 4ko 140/2016 Dekretuaren bidez onartu baitziren.

j) Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez sortua.

k) Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren bidez sortua.

l) Berdintasunerako Batzorde Iraunkorra, Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren bidez sortua. Plan hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2016ko irailaren 6an egindako bilkuran, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, Erakunde Harremanetarako sailburuordearen irailaren 6ko 13/2016 Ebazpenaren bitartez.

m) IKT Batzorde Estrategikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren bidez sortua eta arautua.

n) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa atxikitzen zaio, Administrazioaren egitura hierarkikoan integratu gabe, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridiko nagusiak mendeant dituen organoari, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legean xedatu bezala, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuan xedatu bezala.

ñ) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren datuak babesteko ordezkaria. Sailari atxikitzen zaio, Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorren Sailburuordetzaren bidez, haren egitura hierarkikoan sartu gabe, eta bere eginkizunak autonomia hierarkiko eta funtzional osoz betetzen ditu, datuak babesteko legeria orokorrak xedatzen duenaren arabera, eta maiatzaren 22ko 81/2018 Dekretuaren bidez ezarritako araudi propioaren arabera.

o) Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Institutuzioarteko Batzordea, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen bidez sortua, eta martxoaren 21eko 35/2023 Dekretuaren bidez arautua.

p) Arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistemaren arduraduna. Sailari atxikitzen zaio, Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren bidez, haren egitura hierarkikoan sartu gabe, eta autonomia hierarkiko eta funtzional osoz betetzen ditu bere eginkizunak, ekainaren 13ko 89/2023 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera (89/2023 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren esparruan arau-hausteen berri emateko eta informatzaileak babesteko barneko informazio-sistema sortu eta arautzen duena).

q) Gobernantza Publikoaren Sailarteko Batzordea, Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak sortu eta arautua.

r) Administrazio Elektronikorako Aholku Batzordea, Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren bidez sortua, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen arabera.

3.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailari atxikita daude organismo autonomo administratibo hau eta sozietate publiko hauek:

a) Administrazio Publikoaren Euskal Institutua organismo autonomo administratiboa, Enplegu Publikoko Sailburuordetzaren bidez, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bateginean ezarritako baldintzetan (irailaren 21eko 3/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu hori).

b) Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte / Sociedad Informática del Gobierno Vasco SA (EJIE).

c) Itelazpi SA

4.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua buru dela, Zuzendaritza Kontseilua ere egongo da, sailaren politika orokorra planifikatu eta koordinatzen laguntzeko. Kontseilu horren parte izango dira sailburuordeak, Zerbitzuen zuzendaria, Kabinete eta Komunikazioko zuzendaria eta, landu beharreko gaiaren arabera, bileran parte hartzeko sailburuak deitzen dituen saileko beste goi-kargudunak edo pertsonak.

II. KAPITULUA

SAILBURUA ETA SAILEKO GOI-KARGUDUNAK

3. artikulua.– Sailburua.

1.– Honako eskumen hauek dagozkio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari: Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan aipatzen diren eskumenak, eta indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9. artikulua araberak sail honi dagozkion egiteko eta jardun-arloen esparruan, dekretu horren bidez sortu, ezabatu eta aldatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorreko sailak eta finkatzen baitira sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak.

2.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari dagokio buru izatea, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanetarako Legearen lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusitako batzorde mistoetan.

3.– Honako eskumen hauek ere badagozkio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari:

a) Sailaren organo eta jarduera guztiak programatu, bultzatu, gidatu, koordinatu eta kontrolatzea.

b) Izendapen askeko lanpostuak betetzea –aurretik deialdi publikoa eginez–, eta behin-behineko langileak izendatzea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitutako dirulaguntza izendunak ematea, sailaren jardun-arloan.

d) Saileko organoen arteko eskudantzia-gatazkak ebaztea, eta beste sailekikoak planteatzea.

e) Ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztea.

f) Indarrean dagoen araudiak sailari esleitzen dizkion eskumenak baliatzea, honako arlo hauetan: enplegu publikoa, ondarea, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa, eta, oro har, dekretu honen 1. artikuluan aipatutako egiteko eta jardun-arloekin lotuta daudenak, baldin eta dekretuak sailaren egitura organikoa osatzen duten beste organo batzuei egozten ez badizkie.

g) Saileko organoek ematen dituzten egintzak eta xedapenak ofizioz berrikusteko eta kaltegarri deklaratzeko prozedurak hasi eta ebaztea.

h) Ardura hartzea, euskara, normaltasunez eta orokorrean, sailaren zerbitzu- eta lan-hizkuntza izan dadin, betiere herritarrek aukera izateko bi hizkuntza ofizialen artean aukeratzeko eskubidea baliatzeko sailarekin dituzten harremanetan.

4.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua izango da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeko lehendakaria, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuak onartzen dituen urriaren 4ko 140/2016 Dekretuan xedatutakoari jarraituz.

5.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak Eusko Jaurlaritzaren eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren arteko harremanetarako organo gisa jardungo du, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko abenduaren 21eko 16/2023 Legeak aurreikusitako ondorioetarako.

4. artikulua.– Sailburuordeak.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Saileko sailburuordeei, zuzenean eta hierarkiaz sailburuaren mende jardunez, honako eskumen hauek dagozkie, oro har:

a) Saila ordezkatzea, haren titularrak eskuordetuta.

b) Sailburuordetzako eta haren mende dauden zuzendaritzetako organo eta jarduera guztiak koordinatu, sustatu, programatu eta gainbegiratzea; halaber, mendeko zerbitzuen eta organoen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko zirkularrak, jarraibideak eta zerbitzu-aginduak ematea.

c) Jardun-politikak eta xedapen-proiektuak prestatzea eta sailburuari proposatzea, eta, aginduta dauzkan egitekoen eremuan, hari laguntza teknikoa ematea.

d) Sailburuordetzaren mende dauden zerbitzuetako proiektuak proposatzea, behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak definituz, aurrekontuen aurreproiektua prestatu ahal izateko.

e) Sailburuordetzaren mendeko zuzendaritza-zentroen eta erakundeen funtzionamendua ikuskatu eta kontrolatzea.

f) Sailburuordetzaren mendeko organoek emandako ebazpenen eta administrazio-egintzen aurka jarritako errekurtsioak ebaztea.

g) Saileko hizkuntza-normalizazioaren ardura bere gain hartzea eta beraren eskumeneko alorretan zerbitzu- eta lan-hizkuntzan euskararen erabilera sustatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoari jarraikiz.

h) Zehatzeko ahala baliatzea bere eskumen-eremuan, indarrean dagoen legeriari jarraituz oso astuntzat jotzen diren falten kasuan, betiere egiteko hori beste organo bati espresuki esleitzen ez bazaio.

i) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak espresuki esleitzen dizkien eskumen guztiak, eta, eskumen komunak direlako, oro har sailburuordeei dagozkienak.

j) Bere sailean eta bere eskumeneko esparruetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko erantzukizuna bere gain hartzea, Gobernu Kontseiluak onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian ezarritakoarekin bat etorritz.

5. artikulua.– Zuzendariak.

Zuzendariek, zuzenean eta hierarkiaz dagokien sailburuordearen mende –dekretu honetan zehaztutakoak izan ezik, horiek sailburuaren mende baitaude–, eskumen hauek izango dituzte, oro har:

a) Sailburuaren eta sailburuordeen ebazpenak betearaztea eta eskuordetzen zaizkien eskumenak baliatzea.

b) Saila ordezkatzeta, sailburuak eskuordetuta.

c) Zuzendaritzaren jarduerak programatu, bultzatu, gidatu, koordinatu eta kontrolatzea.

d) Espedienteen erregistroak eta artxiboak eta dagokion zuzendaritzako barne-zerbitzuak eta lan-sistemak antolatzea, organo eskudunek ezarritako arauekin bat eginik, eta hargatik eragotzi gabe Zerbitzu Zuzendaritzari esleitutako eskumen orokorrak.

e) Goragoko organoei proposamenak egitea, beren eskumeneko gaietan.

f) Azterketa eta, hala behar bada, txosten teknikoa eta juridikoa egitea xedapen arauemaileen proiektuei buruz, Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamenei buruz edo sailaren ekimenez sinatzekoak diren hitzarmenei buruz.

g) Errekurtoak ebaztea, indarrean dagoen legerian agindutako kasuetan.

h) Zerbitzu Zuzendaritzari helaraztea zuzendaritza bakoitzaren berezko arloetako estatistika-datuei buruz beharrezkoa den informazioa.

i) Sailari dagozkion egitekoak betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak Interneten izan beharreko presentzia-modeloari dagokionez, betiere bere zuzendaritzari esleitutako arloetan.

j) Beren eskumenaren eremuan zehapen-ahalmena erabiltzea, aplikatu beharreko legeriari jarraikiz, arintzat eta astuntzat jotako faltei dagokienez.

k) Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak espresuki ematen dizkien gainerako egitekoak, eta, oro har, Jaurlaritzako zuzendariei dagozkienak.

l) Zerbitzu Zuzendaritzaren gidaritzapean eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean, indarrean dagoen Euskara Normalizatzeko Planeko helburuak definitzea berari dagokion alorrean eta horiek lortzeko ekimenak garatu eta ebaluatzea bere Zuzendaritzako arduradunekin batera, euskararen kudeaketa integratua eginez.

m) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezartzea eta haien jarraipena egitea Zuzendaritzako jardun-arloetan; besteak beste: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako jendaurreko ekitaldiak. Halaber, hala badagokio, hizkuntza-irizpideak sartzeta administrazio-kontratazioan eta dirulaguntzak emateko deialdietan.

n) Zerbitzu Zuzendaritzaren gidaritzapean eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin elkarlanean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2030 Estrategiako helburuak definitzea berari dagokion alorrean eta helburu horiek lortzeko ekintzak eta ekimenak gauzatu eta ebaluatzea, bere Zuzendaritzako zerbitziburuekin lankidetzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kudeaketa integratua eginez.

ñ) Zuzendaritzaren informazioaren argitaratze aktiboaren eta datu publikoak zabaltzearen jarraipena egitea, bai eta informazio publikoa eskuratzeko eskaerei buruzko txostenen jarraipena ere, gardentasun-politikarekin bat etorritz, eta, halaber, zuzendaritzaren datu publikoak berrerabiltzeko eskaerei erantzutea.

III. KAPITULUA

ZERBITZU ZUZENDARITZA, KABINETE ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARITZA ETA AUTOGOBERNU ZUZENDARITZA

6. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.

1.– Zerbitzu Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan oro har esleitzen zaizkion egitekoez gainera:

a) Sailburuari sailaren estrategiari eta funtzionamenduari buruzko ikuspegi bateratua ematea, baliabideak esleitu eta programak ebaluatzeko garaian, perspektiba orokor batetik, erabakitzeko aukerak emanez.

b) Sailari atxikitako giza baliabideak kudeatzea, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19. artikulua gai horri buruz esleitzen dizkion eskumenak baliatuz.

c) Langileen prestakuntza-planak eta -programak koordinatu eta kudeatzea.

d) Sailaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketa egitea, dagozkion informazio-sistemak, ebaluazio jarraitukoak eta jarraipen-sistemak ezarriz eta mantenduz.

e) Sailari dagozkion gaietan aholkularitza juridikoa ematea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. eta 5.3 artikuluetan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, saileko aholkularitza juridikoa zuzendaritza honi atxikita dago. Halere, Zerbitzu Zuzendaritzaren egiteko hau alde batera utziko da baldin eta sailean zuzenbide-aholkularitzako zeregin espezifikoak esleituta dituzten beste administrazio-unitate batzuk ezartzen badira, bakoitza bere esparruan. Halaber, saileko Aholkularitza Juridikoak izapidetuko ditu sailburuak ebatzi beharrekoak diren saileko organoek emandako egintzak eta xedapenak ofizioz berrikusteko eta kaltegarri deklaratzeko prozedurak.

f) Sailari dagozkion gaietan, oro har, irizpen teknikoak prestatzea saileko organoek hala proposatzen dutenean, eta, halaber, eskatzen zaion laguntza ematea xedapen orokorrak prestatzeko eta administrazio-egintzak emateko prozeduretan.

g) Sailburuak ebatziko dituen ondare-erantzukizuneko espedienteak hasi eta izapidetzea.

h) Kontratuen arloko txostenak egitea, espedienteak izapidetzea eta errekurso arruntak eta gorabeherak ebaztea.

i) Izapideak egitea sailaren gaiak Gobernu Kontseilura eta Jaurlaritzaren batzorde delegatuetara bidaltzeko, baldin eta haiek landu beharrekoak badira.

j) Aldizkari ofizialetan argitaratu beharreko gaiak izapidetzea.

k) Sailaren zerbitzu informatikoen jarraipena egitea eta, hala badagokio, horiek kudeatzea.

l) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin, gainerako zuzendaritzek hizkuntza-normalizazioan egiten duten lana koordinatzea eta dinamizatzea, hala nola euskararen sustapena ere egitea politika publikoetan eta sailak kudeatzen duen beste edozein arlotan.

m) Irailaren 25eko 135/2018 Dekretuaren 9. artikuluan sailari esleitutako argitaratze-egitekoak betetzea (135/2018 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen argitaratze-jarduerari buruzkoa).

n) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailari dagozkion egitekoak, betiere martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredua).

ñ) Sailaren estatistika-lanak bultzatu, proposatu eta egitea.

o) Herritarrei informazioa eman eta harrera egiteko Sailaren zerbitzuen funtzionamendu onena ziurtatzea (harrera-maila espezializatua eta partikularra), bai eta Zuzenean-herritarrei harrera egiteko Jaurlaritzaren zerbitzuarekin harremanak behar bezala artikulatzea ere, bere eskumenen eremuko arloetan solaskide operatiboak badaudela ziurtatuz.

p) Sailak daukan informazio publikoa eskuratzeko eskaerei buruzko espedienteak hasi, izapidetu eta ebaztea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak arautzen duenari jarraituz.

q) Sailak egindako datu pertsonalen tratamenduei aplikatu beharreko segurtasun- eta pribatutasun-neurriak ezartzeko behar den laguntza teknikoa eta antolakuntzako koordinatzea eta ematea.

r) Berdintasun Unitatearen jarduerak gidatzea, eta gainerako zuzendaritzekin, Administrazio Instituzionaleko entitateekin eta sailari atxikitako organoekin batera sustapen- eta koordinazio-lana egitea eta lankidetzan jardutea, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategian aurreikusitako neurriak gauzatzen laguntzeko.

s) Sailean koordinatzea Eusko Jaurlaritzaren esparru orokorreko proiektuak, gai hauetan: kalitatea, etengabeko hobekuntza, herritarrentzako arreta, administrazio elektronikoa eta zerbitzu digitalak, datuen eta informazioaren gobernantza, berrikuntza, gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta gobernu ona.

2.– Saileko Estatistika Organo Espezifikoa Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitzen zaio, betiere Justizia eta Herri Administrazio Saileko Estatistika Organo Espezifikoa sortzeko eta haren antolaketa eta egitekoak ezartzeko otsailaren 16ko 50/2010 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

3.– Zerbitzuen zuzendaria sailaren kontratazio-organoa da, dekretu honen 19.2 artikuluan aurreikusitako eremuen kontratazio publikoetan izan ezik.

4.– Era berean, saileko gastuak baimentzea dagokio, dekretu honen 19.2 artikuluan aurreikusita dauden eremuen kontratazio publikoei dagozkienak izan ezik, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak. Kreditu-transferentzien izapidetzea ere bere eskumenekoa da.

5.– Zerbitzuen zuzendariak eskumena izango du, era berean, entitateekin negozio juridikoak sinatzeko, IKT zerbitzuak eman ditzaten; zehazki, ez errepikariak, ez konbergenteak ez diren zerbitzuak, eta IKT arloan eskumena duen zuzendaritzak finantzatzen ez dituenak. Horretarako, baina, entitateek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateen baliabide propio pertsonifikatuaren izaera izan behar dute, sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen araudian ezarritakoarekin bat etorritz.

6.– Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 129.3 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Zerbitzuen zuzendaria bokala izango da Gobernantza Publikoaren Sailarteko Batzordean, eta haren ordezkoa sailburuaren agindu baten bidez izendatuko da.

7. artikulua.– Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.

Sailburuak, bere egitekoak betetzeko, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzaren laguntza izango du, eta, hark, dekretu honen 5. artikuluan oro har ematen zaizkion eskumenez gainera, honako hauek izango ditu:

a) Sailari esleitutako eskumenak erabiltzeko beharrezko diren laguntza eta aholkularitza ematea sailburuari; halaber, eskumen horiei buruzko jardun-irizpideak eta -planak ezartzeko beharrezko direnak.

b) Sailburuaren agenda publikoko jarduera publikoak eta ofizialak planifikatzea, jarraipena egitea eta antolatzea.

c) Saileko sailburuordetzen arteko koordinazio egokia zaintzea, eta sailak Eusko Legebiltzarrarekin eta Arartekoarekin dituen harremanak bideratzea, organo eskudunen bidez.

d) Teknikak eta metodoak proposatzea, sailaren programa eta jarduna garatzera eta betetzera bideratutako arloetan burutu beharrezko jarduerak planifikatzeko, programatzeko eta ebaluatzeko. Horretarako, sailburuari dagozkion jarraipen- eta koordinazio-egitekoak errazteko beharrezkoak diren laguntza eta agiriak eskatu ahal izango dizkie arlo horiei.

e) Sailaren plan estrategikoak eta haien jarraipen-txostenak prestatzen laguntzea, sailburuordetzekin koordinatuta.

f) Sailaren eginbeharrekoetan eragina duten gaien inguruko informazio egokia bildu, aztertu eta aurkeztea, gaiarekin zerikusia duten saileko beste organo eskudunekin elkarlanean.

g) Europar Batasunaren instituzioen inguruan sailari dagozkion jardueren jarraipena egitea.

h) Sailaren ekintza publikoen informazio- eta publizitate-estaldura egokia koordinatzea.

8. artikulua.– Autogobernu Zuzendaritza.

Autogobernu Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan oro har esleitzen zaizkion egitekoez gainera:

a) Sailburuari laguntzea estatuarekiko eta beste lurralde-erakunde batzuekiko harreman-politika zuzentzen eta sailen artean koordinatzen autogobernuaren eta estatutu-garapenaren arloan, horretarako dauden organo mistoetan parte hartuz, bai eta horiek gauzatzen ere.

b) Sailburuari aholku ematea, behar bezala zuzendu, koordinatu eta gauzatu dezan autonomia-erkidegoaren eskumenei dagozkien zerbitzu-transferentziak artikulatzeko politika, estatuari zein lurralde historikoei dagokienez. Autogobernu Zuzendaritzak Araubide Juridikoaren Sailburuordetzarekin lankidetzan jardungo du, eta Ogasun eta Finantza Sailarekin koordinatuko da transferitzeko eskumen, eginkizun eta zerbitzuen balorazio ekonomikoari dagokionez.

c) Elkarlanean landu, gauzatu eta bultzatzea Jaurlaritzaren eta Estatuaren, beste autonomia-erkidego batzuen edo foru- eta toki-erakundeen arteko aldebiko edo alde anitzeko erakunde-harremanen politikak.

d) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremua erabat garatu ahal izateko mekanismoak, ereduak eta tresnak aztertzea, bai eta autogobernuan sakontzea eta hura bermatzea ahalbidetuko dutenak ere.

e) Estatutuaren garapena bultzatu eta aztertzea, ordenamenduaren eskumen-azterketa juridikoa eginez, eta autogobernuaren eta hura artikulatzeko bideen garapena eta nolakotasuna hobetzeari buruzko azterlanak eta proposamenak egitea.

f) Idazkaritza-lanak egitea Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorreetan eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanetarako Legearen lehenengo xedapen iragankorreetan aurreikusitako transferentzien batzorde mistoetan. Era berean, estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko aldebiko batzordeetan parte hartzea, horietan parte hartzeko izendatzen badute.

g) Estatuko instituzioei, foru-instituzioei eta toki-instituzioei buruz sortzen diren eskumen-gaiak aztertzea eta Jaurlaritzari aholku ematea; bereziki, Gorte Nagusietan edo lurralde historikoetan izapidetutako ekimenen jarraipena eta azterketa egitea, bai eta estatuaren araudiarena ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen banaketa konstituzional eta estatutarioaren ikuspegitik.

IV. KAPITULUA

ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDETZA

9. artikulua.– Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza.

1.– Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 4. artikuluan oro har ematen zaizkion eskumenez gainera:

a) Gobernu Kontseiluaren lanak eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 22. artikulua babesean sortzen diren batzorde delegatuen lanak antolatzea.

b) Jaurlaritzak Legebiltzarrean hartutako konpromisoak zenbateraino betetzen diren zaintzea, sailekin lankidetzan.

c) Lehendakariari Legebiltzarrarekiko eta Arartekoarekiko harremanetan laguntzea, Jaurlaritza Legebiltzarreko Bozeramaileen Batzordearen aurrean ordezkatzuz, hala dagokionean.

d) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria kudeatzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen, elkarten, sozietate zibilen eta elkargo profesionalen arloan lege ezlehitutako eginkizunak betetzea.

f) Toki-administrazioaren arloko jardunak ikuskatu eta aztertzea.

g) Gobernu irekiko politikak bultzatzea; besteak beste, gardentasuna eta herritarrek gai publikoetan parte hartzea.

h) Parte-hartze soziala eta herritarrentzako informazio zuzena, multimedia- eta komunikazio-teknologia berriak bultzatuz.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko gobernantza publikoaren eredia diseinatzea, Jaurlaritzaren politika publikoak definitzeko, koordinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko orduan.

j) Berrikuntza publikoa eta Administrazioaren antolamenduaren modernizazioa eta berritzea bultzatu, zuzendu eta garatzea.

2.– Honako zuzendaritza hauek daude Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren mende:

a) Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

b) Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

c) Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritza.

10. artikulua.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza.

1.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak, dekretu honen 5. artikuluan zehaztutako egitekoez gain, Gobernu Kontseiluaren eta Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 22. artikulua babesean sortzen diren batzorde delegatuei dagokienez, beste eskumen hauek ere izango ditu:

a) Bileretako gai-zerrenda prestatu eta banatzea, eta erabakitzeko azertu beharreko gaiak ezagutzeko behar diren agiriak, aurrekariak eta datuak.

b) Erabakiak izapidetzeko eta, hala behar bada, balioztatzeko beharrezko eskakizun juridikoak, finantzarioak eta formalak betetzen direla zaintzea, nahitaezko txostenak eskuratuz, hala behar denean.

c) Jaurlaritzak gaiak izapidetzeko onartutako arauak eta jarraibideak eta legegintza-teknikarako onartutako gidalerroak betetzen direla zaintzea.

d) Hartutako erabakien aktak prestatu eta zaintzea, eta erabakiok betetzen direla zaintzea.

e) Hartutako erabakiak egiaztatzea, eta ezagutzeko, deliberatzeko eta onartzeko aipatutako organoei aurkezten zaizkien gaiei buruzko testuen kopia autentifikatuak egitea.

f) Bileretan aurkeztu behar diren agiriak normalizatzeko jarraibideak proposatzea.

2.– Eusko Legebiltzarrarekiko harremanetarako arloan, jarraian zehazten diren egitekoak beteko ditu:

a) Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko harreman- eta komunikazio-organo gisa jardutea.

b) Legebiltzarreko fasean legegintza-programaren jarraipena egitea.

c) Azterlanak, dokumentazio-lanak eta prestaketa-lanak egitea, Eusko Jaurlaritzak irizpideak izan ditzan, Eusko Legebiltzarrean aurkezten diren lege-proposamenak, legegintzako herri-ekimenak, legez besteko proposamenak eta mozioak aintzat hartu edo ez erabaki behar duenerako.

d) Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaizkion ekimenekin eta galdera eta interpelazioekin zerikusia duen informazioa eskatzea Administrazioan eskumena duten organoei.

e) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari ezartzen dizkion konpromisoen jarraipena egitea.

f) Eusko Legebiltzarraren jardueraren berri ematea, oro har, Eusko Jaurlaritzari.

3.– Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzaren eta Arartekoaren arteko harreman- eta komunikazio-organo gisa jarduten du.

4.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari dagokionez, haren araudiak ezartzen dizkion egitekoak betetzen ditu.

5.– Zuzendaritza honen eskumena da euskal administrazio publikoen agintariak atzerrian eragina izan behar duten agirietan ezarri beharreko sinadura legeztatzea, legeztatze bakarrari edo Hagako apostillari buruzko araudi aplikagarriarekin bat etorritik, betiere eginkizun hori ez bazaia administrazio horietako beste organo batzuei esleitu.

6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren erakundeek euren artean edo beste administrazio, entitate eta antolakunde publiko edo pribatuekin egiten dituzten edozein eratako hitzarmenen eta akordioen erregistroa ere badagokio.

7.– Gastu erreserbatuetarako kredituen funtsak erabiltzeko aukera duten agintarien Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroa zuzendaritza honi atxikitzen zaio.

11. artikulua.– Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza.

1.– Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan zehaztutako eskumenez gainera:

a) Toki-araubideko arauak koordinatu eta prestatzea.

b) Toki-eginkizunen eta -zerbitzuen inguruko informazioa, azterketa eta aholkularitza ematea.

c) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskumen diren toki-araubideko gaiak aztertzea, haiei buruzko aholkuak eman eta txostenak egitea eta gaiok ebaztea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailen eta organismo autonomoen eta foru- eta toki-administrazioaren arteko lankidetzak eta harreman-politika sustatu eta zaintzea.

e) Toki-entitateak elkartu eta garatzeko formula organiko eta funtzionalak sustatzea.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak dituen ahalmenak baliatzea, estaturako gaikuntza duten toki-administrazioaren funtzionarioei dagokienez.

g) Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluko idazkaritza-lanak egitea –Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 83. artikulua bidez sortua–.

h) Toki-administrazioari buruzko erregistro-tresnak kudeatzea.

i) Autonomia-erkidego honen eskumeneko elkarten araubide orokorra, horretarako sortutako erregistroa eta Onura Publikoko Elkarten Babesletza eramatea.

j) Euskadiko Sozietate Zibilen Erregistroa bultzatzea eta garatzea.

k) Elkarten lurralde-bulegoak koordinatu, zuzendu eta gainbegiratzea.

l) Autonomia-erkidegoaren eskumeneko fundazioen araubide orokorra, eta horretarako sortutako erregistroa eta Fundazioen Babesletza eramatea.

m) Elkargo profesionalekin lotutako egiteko instituzional, orokor eta korporatiboak egitea, Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legean xedatutakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe elkargo horiek beren sektore-eremuan sailekin izan ditzaketen harremanak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteak eta Sozietate Zibilen Erregistroaren lurralde-bulegoak lurralde historiko bakoitzeko hiriburuan daude, eta Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren lurralde-zerbitzu deszentralizatuak dira.

12. artikulua.– Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritza.

1.– Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren Zuzendaritzak, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren egitekoez gain, honako eskumen hauek izango ditu:

- a) Gardena-ren eta Irekia-Gobernu Irekiaren plataformak eta atari publikoak kudeatzea.
- b) Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bultzatzea politika publikoen definizioan, kudeaketan, gauzatzean eta ebaluazioan.
- c) Jaurlaritzari laguntza ematea Gobernuaren interes orokorreko gaiak euskal gizarteari komunikatzerakoan.
- d) Gizarteak eta herritarrek politika sektorialak diseinatzeko eta ezartzeko parte hartu eta lagundu behar dutela jakinaraztea gobernu-organoei, eta horren gainean sentsibilizatzea.
- e) Herritarrek parte hartzeko eta euren proposamenei erantzun instituzionala emateko bideak sustatzea.
- f) Sare sozialetan eta herritarrekiko harremanetarako lankidetzak-guneetan erakundeen presentzia gidatu, antolatu, koordinatu eta gainbegiratzea.
- g) Gardentasunaren eta informazio publikoaren publikotasun aktiboaren arloan indarrean dagoen legeria betetzeko eta bultzatzeko lanak zeharka koordinatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren sektore publikoa indartzea estatuko eta nazioarteko gardentasun-indizeetan.
- h) Herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea kudeatzea eta koordinatzea, eta sektore publikoko informazioa berrerabiltzeko eskaeren prozedura koordinatzea.
- i) Erakundeen arteko parte-hartzea eta konpromisoak koordinatzea Gobernu Irekiaren arloan.
- j) Araugintzako herri-ekimenen kudeaketa koordinatzea.
- k) Euskal Gobernantza Publikoa ezartzeko eta hedatzeko prozesuak eta tresnak diseinatzea eta garatzea, politika publikoak definitzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko.
- l) Plan eta proiektu korporatiboak egitea, koordinatzea eta bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren sektore publikoaren antolamendua, lan-prozesuak eta kudeaketa publiko aurreratua berri eta hobetzeko.
- m) Xedapen orokorren proiektuak, araugintza-ekimenak eta jarraibideak egitea antolaketaren eta egituren arloan, eta haiek sinplifikatzea, administrazio-kargak murriztea eta herritarrentzako kalitatea eta efizientzia hobetzea.

n) Euskal Gobernantza Publikoaren, barne-egituraketaren, antolaketaren eta erakunde instituzionalen sorreraren arloan sailen jarduerak eta xedapen orokorren proiektuak aztertu eta ebaluatzea, eta arlo horietako nahitaezko txostenak egitea.

ñ) Datu pertsonalen tratamenduaren arduradun gisa dagozkion eginkizunak betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Administrazio Institutuzionaleko kide anitzeko organoen kudeaketa-sisteman.

2.– Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren 2.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Gobernu Irekiaren eta Gobernu Onaren zuzendaria izango da organo horren batzordeburua.

V. KAPITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDETZA

13. artikulua.– Araubide Juridikoaren Sailburuordetza.

1.– Araubide Juridikoaren Sailburuordetzak, dekretu honen 4. artikuluan aipatzen diren egitekoez gain, honako eskumen hauek ere izango ditu:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari eta Institutuzionalari aholkularitza juridikoa ematea –eta epaiketetan hura ordezkatu eta defendatzea–, bai eta sortze-legean hala jasota duten erakunde publikoei, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko, merkataritza-sozietate, fundazio publiko, partzuergo eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetza duten gainerako entitateei ere, baldin eta horretarako hitzarmena sinatzen badute.

Aholkularitza juridikoa emateko eginkizunak beteko ditu, betiere alde batera utzi gabe Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen kide anitzeko kontsulta-organo gorenaren izanik, bere jardun-eremuan esleituta dauzkan eginkizun bereziak.

Aurrekoa guztia, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Zentrala sailburuordetza honi atxikita dagoela kontuan hartuta.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen antolaketaren eta prozeduraren araubide juridikoaren arloan, araugintza-garapena landu eta proposatzea, eta, azken kasu horretan, Administrazioa arrazionalizatzeko, hobetzeko eta modernizatzeko emandako gidalerroetara egokitzea.

c) Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari eta sailari laguntzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Euskadiko foru- eta toki-erakundeetako administrazioekin dituen harreman instituzionaletan. Horretarako, Administrazio honek Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko Aldebiko Lankidetzaren Batzordeko lantaldeetan duen ordezkarietza koordinatzea dagokio.

2.– Azaroaren 24ko 9/2004 Legean eta haren antolakuntza- eta jarduera-erregelamenduan ezarritako moduan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa Araubide Juridikoaren Sailburuordetzari atxikitzen zaio, baina haren egitura hierarkikoan sartu gabe, aholkua emateko eginkizuna autonomia hierarkiko eta funtzional osoarekin egiten baitu.

2024ko azaroaren 11, astelehena

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako titularrak edukiko du organo aholku-emaile goren horren lehendakaritza.

3.– Ordezkaritzako, defentsako eta jakinarazpenetako lurralde-bulegoak Araubide Juridikoaren Sailburuordetzaren lurralde-zerbitzu deszentralizatuak izango dira.

4.– Sailburuordetza honi Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea atxikitzen zaio, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen bidez sortua eta urriaren 4ko 140/2016 Dekretuaren bidez estatutuak onartuta dituen.

5.– Honako zuzendaritza hauek Araubide Juridikoaren Sailburuordetzaren mende egongo dira:

a) Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

b) Auzibide Zuzendaritza.

14. artikulua.– Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza.

1.– Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren egitekoez gain, honako eskumen hauek ere izango ditu:

a) Sailek eta erakunde autonomoek hala eskatzen dutenean, haien eskumenekoak diren arazoei buruzko irizpenak edo txosten juridikoak lantzea.

b) Beste erakunde instituzional batzuek hala eskatzen diotenean, irizpenak edo txosten juridikoak egitea, haien intereseko gaiei buruz.

c) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez dagozkion lege-aurreproiektuen eta eduki arauemailea duten erregelamendu-xedapeneko proiektuen legezkontasunaren barne-kontrola, eta Gobernu Kontseiluak agintzen dizkion beste gai batzuk.

d) Defentsa jurisdikzionala egiteko ardua duten organoentzako txostenak lantzea eta aholku juridikoak ematea, zuzendaritza horrek landutako xedapenak aurkaratuz gero.

e) Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen eremuan beharrezko den arau oro prestatu eta garatzea, bai eta euskal administrazio publikoen egituraketarako eta sailkapen instituzionalerako lanabesak eta ereduak prestatu eta proposatzea ere, Administrazioaren berrikuntzaren eta kalitate-hobekuntzaren eremuan emandako jarraibideetara egokitzeke; hori guztia organo eskudunekin lankidetzan.

f) Euskal Zuzenbide Zibila zaindu, aldatu eta garatzera bideratutako jarduerak landu eta proposatzea.

2.– Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 6.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaria izango da aholkularitza-organoren goren horren lehendakariordea.

3.– Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen Estatutuak onartzeko den urriaren 4ko 140/2016 Dekretuaren eranskineko 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaria izango da Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen idazkari nagusia.

15. artikulua.– Auzibide Zuzendaritza.

Auzibide Zuzendaritzak, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren egitekoez gain, honako eskumen hauek ere izango ditu:

- a) Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren ordezkartzako eta defentsako beharrezko aurre-ekintzak egitea, eta ekintza horiek gidatu eta koordinatzea.
- b) Judizio-ekintzak hasteari buruz aholkuak ematea, txostenak egitea eta jardunak koordinatzea.
- c) Administrazioaren jarduna zuzentzeko neurriak proposatzea, ahalik eta errekurtsu edo erreklamazio gutxien jar daitezten.
- d) Epaiak betearaztearen ondoriozko administrazio-ekintzak koordinatzea.
- e) Epaiek ordenamendu juridikoaren eta, oro har, judizio-prozeduren ondorioen gain izan dezaketen eragina aztertzea.
- f) Oro har, judizioetan defentsa eta ordezkapenaren arloan dagozkion gainerako berariazko jarduketak egitea, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeke ekainaren 2ko 7/2016 Legearekin eta hura garatzeko araudiarekin bat etorriz.

VI. KAPITULUA

ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDETZA

16. artikulua.– Enplegu Publikoko Sailburuordetza.

1.– Dekretu honen 4. artikuluan oro har esleitzen zaizkion egitekoez gain, Enplegu Publikoko Sailburuordetzari dagozkio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailari enplegu publikoaren, langileen araubide juridikoaren nahiz ordainsarien araubidearen eta negozioazio kolektiboaren arloan esleitzen zaizkion eskumenak.

2.– Sailburuordeak eskumen hauek izango ditu:

- a) Giza baliabideekin lotutako politikaren planifikazioa eta betearazpena zuzendu eta koordinatzea, baliabide horiek gizartearen premiei eta eskaerei egokitzeko egin beharreko jarduerak proposatuz, eta bai Administrazioa egituratzen duten unitateak arrazionalizatu eta antolatzea ere.
- b) Aurrekontu-plantilletako aurreproiektua prestatzea ogasunaren arloan eskumena duen sailarekin batera.
- c) Efektiboak arrazionalizatzeko eta berresleitzeko planak prestatu eta proposatzea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren eremuko negozioazio kolektiboaren edukiak eta mugak prestatu eta proposatzea, bai eta solaskidetzak-, koordinazio-, eta, beharrezkoa bada, erabaki-egitekoak bermatzeko irizpideak zehaztea eta tresnak diseinatzea ere.
- e) Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egitea.
- f) Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezkatzeko funtzionarioen eta langile lan-kontratudunen ordezkariekin burutu behar duen negozioazioan eta beste administrazio batzuetako enplegu publikoan eskumena duten beste organo batzuen aurrean.
- g) Langileen ohiko kudeaketan sailatarako eta organismo autonomoetarako aplikazio-irizpide komunak ezartzea, Jaurlaritzak arlo honetarako onartzen duen politika orokorra betez.

h) Laneko osasun- eta segurtasun-arloetan Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen aplikazio komuneko prebentzio-politikako irizpideak ezartzea sail eta organismo autonomoetarako.

i) Ikuskatze-eginkizuna betetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren langile eta zerbitzuen arloan, Langile eta Zerbitzuen Ikuskaritza Nagusiaren bidez.

j) Bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren bai horren sektore publikoaren langileen ordainsari-sistema kudeatzeko irizpide orokorrak ezartzea, baita dagozkien gizarte aurreikuspeneko sistemenak ere.

3.– Honako zuzendaritza hauek Enplegu Publikoko Sailburuordetzaren mende egongo dira:

a) Enplegu Publikoko Zuzendaritza.

b) Lan Harremanen Zuzendaritza.

17. artikulua.– Enplegu Publikoko Zuzendaritza.

Enplegu Publikoko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzak ezarritako gidalerroen arabera, giza baliabideen politika garatu, kontrolatu eta gauzatuko du, eta, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren egitekoez gain, honako eskumen hauek ere izango ditu:

a) Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 18. artikuluan aipatutakoak, salbu eta dekretu honetan edo gainerako sailen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duten dekretuetan beste organo batzuei berariaz esleitzen bazaizkie.

b) Giza baliabideen kudeaketa-politika planifikatzea, hautaketako, prestakuntzako, jarduna ebaluatze eta karrerako tresnak diseinatzea, lanpostuen analisiaren bitartez, eta lan-tresnon efizientzia eta efikazia egiaztatze beharrezko azterketak egitea.

c) Saileko eta sailen arteko jarduna eta proiektuak landu, koordinatu eta ebaluatzea barne-egituraketaren eta langileen antolaketaren arloan, eta, hala badagokio, jardun eta proiektuok lanpostu-zerrenda egokietan txertatzea. Ondoriozko lanpostuak baloratzea, Eusko Jaurlaritzak ezarritako giza baliabideen politikako jarraibideekin bat etorritz.

d) Txostena egitea, nahitaezkoa eta loteslea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako edozein sortzeko eta eratzeke unean funtzionatzeko beharrezkoak diren giza baliabideen aurreikuspenei buruz, bai eta ondorengo plantilla-handitzei buruz ere.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren organismo autonomoetan lanpostuak behar bezala betetzeko behar diren tresnak kudeatzea.

f) Txostena egitea, nahitaez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoan, Ertzaintzan, unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetan eta Segurtasun Administraziooko laguntza-zerbitzuetan sartzeko hautaprobaren deialdietako oinarriei buruz. Horrelakoetan, espresuki txostena egin beharko da hautaprobako alderdi tekniko eta metodologikoei buruz; eta, horretarako, deialdia egiten duen Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren laguntza eska dezake.

g) Enplegu publikoaren arloko irizpenak lantzea, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta organismo autonomoek hala eskatzen diotenean.

h) Langileen prestakuntza-politika diseinatu eta gauzatzea.

i) Langileen Erregistro Zerbitzuaren bitartez, kargu publikoen katalogoa eta haien bateraezintasun-araubidea kudeatzea, baita Jardueren Erregistroa eta Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroa eramateko ardura hartzea ere, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritakoari jarraituz.

j) Langileei eragiten dieten administrazio- eta lan-arloko gorabeherak izapidetzeko eta ebazteko jarraibideak ematea, bai eta gorabehera horiek ebaztea ere, baldin eta Administrazio Orokorreko sailei edo organismo autonomoei espresuki esleituta ez badaude.

k) Biziartereko pentsioa aitortzeko espedienteak izapidetu eta ebaztea, Kargu publikodunen betebeharreri eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz.

l) Enplegu Publikoari eta lan-baldintzei buruzko xedapen orokorren proiektuak eta Gobernu Kontseiluaren erabakiak izapidetzeko txosten tekniko eta juridikoak egitea.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren organismo autonomoen langileen ordainsari-sistema kudeatzea, baita dagozkien gizarte-aurreikuspeneko sistemak ere.

n) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren organismo autonomoen Langileen Erregistroa zuzentzea eta kudeatzea.

18. artikulua.– Lan Harremanen Zuzendaritza.

Lan Harremanen Zuzendaritzak, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren egitekoez gain, honako eskumen hauek ere izango ditu:

a) Enplegu Publikoko Sailburuordetzari laguntzea Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Instituzionalaren eremuko negoziazio kolektiboaren edukiak eta mugak prestatzen eta proposatzen.

b) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Instituzionalaren ordezkari izatea sindikatuekin eta langileen beste ordezkapen-organo batzuekin egiten diren elkarrizketetan eta negoziazioetan.

c) Langileen ordezkariekin lortutako edo izenpetutako akordio edo hitzarmenen ondorioz sortutako organo edo lantaldeetan sailaren ordezkari izatea, baldin eta akordioan espresuki beste organo bati esleitu ez bazaio egiteko hori.

d) Txostenak egitea, aldez aurretik eta nahitaez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko eta gainerako sektore publikoko langileen ordezkariekin lortu edo sinatu behar diren akordio edo hitzarmenei buruz, bai eta, sozietate publikoen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen kasuan, lanbide-birsailkapeneko neurriei edo antzeko beste batzuei buruz ere, antolamendu-eskumenetan oinarria badute.

e) Sailei, organismo autonomoei, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta sozietate publikoei laguntza ematea, eta parte hartzea, hala badagokio, langileen ordezkariekin egin beharreko negoziazioetan.

f) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen ordezkariekin izenpetutako akordio eta hitzarmenen indarraldiari eta aplikazioari buruz sortzen diren administrazio- eta lan-arloko gorabeheren gaineko txostena egitea eta horiek ebaztea, eta aplikazio komuneko jarraibideak ezartzea.

g) Langileen bertaratzea kontrolatzeko aplikazio-irizpide komunak ezartzea, eta aplikazio informatikoa administratzea.

h) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde edo sistemetan duen parte-hartzea kudeatu eta koordinatzea, bazkide edo ekarpen-egile gisa esku hartzen badu.

i) Langileei gizarte-laguntzak ematea eta laguntzok kudeatzea, eta horiek izapidetu eta ebatzi behar dituzten sailek eta erakunde autonomoek jarraitu beharreko gidalerroak ezartzea, indarreko legeen arabera.

j) Lan-harremanekin, lan-baldintzekin eta giza baliabideak antolatzearekin eta zerbitzu publikoen kalitate handiko eredu batera egokitzearekin zerikusia duen guztiaren segimendua eta ebaluazioa egitea.

k) Enplegu Publikoko Sailburuordetzak Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen eremuan hartutako laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko aplikazio-irizpide komunak betearaztea.

l) Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko kultura egokia sustatzea, bai eta prebentzio- eta zuzenketa-neurriak diseinatzea ere, eta organo eskudunek betearaz ditzatela bultzatzea, koordinazio-irizpideak ezarrita, beharrezkoa balitz.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Prebentzio Zerbitzu propioa kudeatzea.

n) Eskubide Pasiboen Batzordearen euskarri administratiboa izatea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan zerbitzuak egin zituen langileriaren eskubide profesional eta pasiboen testuategina onartzen duen maiatzaren 13ko 1/1986 Legegintzako Dekretuan aurreikusitako prestazio ekonomikoak emateko espedienteen eta proposamenaren izapidetzea kudeatzea.

VII. KAPITULUA

ADMINISTRAZIO DIGITALAREN ETA ZERBITZU OROKORREN SAILBURUORDETZA

19. artikulua.– Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorraren Sailburuordetza.

1.– Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorraren Sailburuordetzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 4. artikuluan oro har esleitzen zaizkion eskumenez gainera:

a) Estrategia digitala zuzentzea, eta informazio- eta telekomunikazio-sistema korporatiboak zuzendu eta gainbegiratzea.

b) Eraldaketa digitala, berrikuntza eta Administrazioaren prozesuak arindu eta sinplifikatzea bultzatu, zuzendu eta garatzea.

c) Administrazio digitala eta gobernu elektronikoa.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren prozeduren araubidea, Araubide Juridikoaren Sailburuordetzarekin lankidetzan.

e) Herritarrei informazioa eman eta, oro har, harrera egiteko prozesu, tresna eta zerbitzu korporatiboak, zentralizatuak eta kanal anitzekoak bultzatu eta garatzea.

f) Hainbat sailerako zerbitzuen, artxiboen eta argitaratze-jardueraren arloko eginkizunak betetzea.

2.– Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorren sailburuordeak kontratazio-organoari dagozkion eskumenak beteko ditu, bai eta gastuak baimendu ere, arlo hauetan sustatzen diren kontratazio publikoetan:

a) Higiezin kudeaketa bateratua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren I. tituluko III. kapituluko 1. atalean arautua.

b) IKT zerbitzuen kudeaketa bateratua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko ereduari buruzko martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan arautua.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren organismo autonomoen argitaratze-jarduera, irailaren 25eko 135/2018 Dekretuan arautua.

d) Administrazioari ibilgailuen Atalaren kudeaketa, uztailaren 27ko 300/1999 Dekretuari jarraituz, horren 2. eta 3. artikuluek zehazten duten eremuan.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Artxibo Sistema, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean ezarritakoaren arabera.

3.– Honako zuzendaritza hauek Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorren Sailburuordetzaren mende egongo dira:

a) Estrategia Digitalaren Zuzendaritza.

b) Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza.

c) Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

20. artikulua.– Estrategia Digitalaren Zuzendaritza.

1.– Estrategia Digitalaren Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren eskumenez gainera:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuan IKTen arloko zuzendaritza eskudunari esleitutakoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zerbitzuen eraldaketa digitalerako interes estrategikoa duten proiektu komunak koordinatzea, eta digitalizaziorako interes estrategikoa eta lehentasunezkoa duten proiektu komunak gauzatzea.

c) IKTak erabiltzeko eta kudeatzeko akordio, arau, estandar eta prozedura orokorren proposamenak egitea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko datuen administrazioari, segurtasunari eta pribatutasun-bermeari buruzko jarraibide komunak lantzea, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta horiek betetzen direla zaintzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateei aholkularitza ematea, prozedurak eta zerbitzuak informatizatzeko eta ICTak erabiltzeko dituzten premiei eta eraldaketa digitalerako eta adimen artifizialerako estrategien gainean dituztenei erantzuteko.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko ICTen auditoretzak egitea.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta entitateekin eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekin lankidetzan, eraldaketa digitalaren, adimen artifizialaren eta ICTen arloan langileak gaitzeko, prestatzeko eta hobetzeko plan eta programak prestatzea.

h) Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 120.4 artikuluan Interneteko presentzia-ereduari buruz esleitutakoak, hargatik eragotzi gabe Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak Interneteko domeinu-izenen kudeaketaren arloan dituen eskumenak.

i) Irratia eta telebista hedatzeko zerbitzuen zerbitzu eramailearen kudeaketari buruzkoak, baita zerbitzu horren euskarri diren azpiegiturak administratzeak eta ustiatzeak berekin dakartzaten ahalmenak ere, eta irrati-maiztasunen espektroarekin eta espektro horren gaineko zerbitzuekin lotutakoak.

j) Informazioaren Gizartea sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eta herritarren artean, zehazki telekomunikazioen azpiegiturekin lotutakoak, bai eta Jaurlaritzak onartzen dituen kasuan kasuko planetan ezartzen direnak ere, besteak beste eten digitala murrizteko xedearekin.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren administrazio digitaleko zerbitzuen euskarri diren plataforma teknologikoak definitu, garatu, ezarri eta mantentzea.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak argitaratutako aplikazio mugikorak kudeatzea, argitaratzea eta katalogatzea.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko informazio-sistemen (aplikazioak eta aktibo digitalak) eta azpiegitura teknologikoen datu-basea sortzea, mantentzea eta ustiatzea.

n) Adimen artifizialaren estrategia gidatu eta koordinatzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikorako adimen artifizialeko algoritmoen eta sistemen erregistro publikoa egitea eta mantentzea ere.

ñ) Datuak biltegitratzeko, kudeatzeko, balioztatzeko eta erabiltzeko estrategia definitzea eta onartzea, herritarrei zerbitzu publikoak hobeto emateko.

o) Erakundeetan datuen gobernantzaaren estrategia gidatu eta hedatzea, eta sistemaren kudeaketa eraginkor, etiko, arduratsu eta fidagarria bermatzeko jarraibideak ezartzea.

p) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan datuak partekatzeko prozesua gidatu eta bultzatzea, horretarako irizpideak erabakita, eta erakunde eta sektore desberdinen arteko datuen elkarreragingarritasuna zailtzen duten trabak eta oztopoak kenduta, baldin eta datuak, prozesuak eta erakundeak integratzeko aukerari eragiten badiote, betiere indarrean dagoen legeriaren esparruan.

q) CDO – Chief Data Officer edo Datuaren zuzendari gisa esleitzen zaizkion gainerako eskumenak.

r) Cloud estrategia bat gidatu, prestatu, onartu eta hedatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren premiei erantzuteko.

s) Zerbitzu konbergenteen eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zibersegurtasunaren eragiketaz arduratzea, mehatxu guztietatik babesteko, haiei erantzuteko, eta haiek detektatzeko, arintzeko eta ezabatzeko tresnak hedatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko azpiegitura teknologikoak, komunikazioak eta lanpostu korporatiboak babesteko.

2.– Estrategia Digitalaren zuzendariak eskumena izango du, era berean, entitateekin errepikariak ez diren baina konbergenteak diren IKT zerbitzuak emateko xedea duten negozio juridikoak sinatzeko; horretarako, baina, entitateek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateen baliabide propio pertsonifikatuaren izaera izan behar dute, sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen araudian ezarritakoarekin bat etorri. Eskumena izango du, halaber, ez errepikariak ez konbergenteak ez diren IKT zerbitzuen enkarguak sinatzeko, baldin eta IKTen arloan eskumena duen zuzendaritzak berak finantzatzen baditu.

21. artikulua.– Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza.

1.– Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren eskumenez gainera:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren sektore publikoaren egitura eta antolamendu digitala –bai eta lan- eta kudeaketa-prozesuak ere– berritzeko eta hobetzeko plan eta proiektu korporatiboak egitea, koordinatzea eta bultzatzea.

b) Xedapen orokorren proiektuak, araugintza-ekimenak eta jarraibideak egitea, digitalizazioaren, Interneteko presentziaren, kudeaketa-prozesuen eta prozeduren arloan, eta horiek sinplifikatzea, arintzea, administrazio-kargak murriztea eta herritarrentzako kalitatea eta efizientzia hobetzea.

c) Sailen jarduketak eta xedapen orokorren proiektuak aztertu eta ebaluatzea, digitalizazioaren, Interneteko presentziaren, kudeaketa-prozesuen eta prozeduren arloan, eta arlo horietako nahitaezko txostenak egitea.

d) Bermatzea herritarrei arreta emateko kanal anitzeko eredu bateratuak ziurtatzen duela pertsona fisikoek administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanetarako bidea aukeratzeko duten eskubidea.

e) Prozedurak izapidetzeko eta herritarrei arreta kalitatez, eraginkortasunez eta efizientziaz emateko oinarri diren antolaketa, prozesuak eta teknologiak bultzatzea.

f) Herritarrei arreta emateko zerbitzu korporatibo transbertsalak kudeatzea, maila orokorrean, kanal guztietan modu zentralizatuan.

g) Sailekin batera lankidetzan, deialdi publikoen egutegi korporatiboa egitea eta koordinatzea, korrelazioa eta oreka lortzeko herritarrengan sortutako eskariaren eta arreta eta zerbitzua hobeto ematearen artean.

h) Herritarren arreta-zerbitzua ematea bideragarria dela eta prozeduren deialdietan indarrean dagoen araudian aitortutako eskubideak errespetatzen direla aztertzea eta horri buruzko txostena egitea, horiek onartu aurretik eta, betiere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurretik.

i) Erregistro Elektroniko Orokorra kudeatzea eta herritarrei laguntzea, Eusko Jaurlaritzaren erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan bitarteko elektronikoak erabiltzen gaitutako funtzionarioen bidez; horrez gain, ahalordeen erregistro elektronikoa kudeatzea, eta funtzionario gaituen erregistroa ezartzea.

- j) Zerbitzu eta Prozeduren Katalogo Korporatiboa kudeatu, eratu eta mantentzea.
- k) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzu elektronikoak kudeatzeko eredia ezartzea.
- l) Administrazio elektronikoaren eraginkortasunez ezartzea administrazio-prozeduretan eta gai publikoen kudeaketan.
- m) Erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoak ezartzea, zerbitzu publikoen transformazio digitala hedatzeko eta herritarrek, zerbitzu horietan interesdun diren heinean, euren eskubideak balia ditzaten bultzatzeko.
- n) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren izapidetze elektronikorako zerbitzu komunak deklaratu, kudeatu eta mantentzea.
- ñ) Administrazio-zerbitzuak eta -prozedurak digitalizatzea, xede hauekin: herritarrak, prozesuen berringeriarritza, administrazioa sinplifikatzea, kargak murriztea eta izapideak eta dokumentuak normalizatzea, hizkera argia erabilia.
- o) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Interneten duen presentzia-eredua zuzendu, antolatu, koordinatu eta gainbegiratzea.
- p) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren intranet korporatiboa diseinatu, garatu eta kudeatzea, informazio-tresna gisa eta talde-lana, ezagutza partekatua eta erakunde-ikaskuntza errazteko.
- q) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika zehaztea, hargatik eragotzi gabe Artxibo Nagusiaren eginkizunak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean ezarritakoak.
- r) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zerbitzu publikoen eraldaketa digitala gainbegiratu eta ebaluatzea, saileko estatistika-organoarekin koordinatuta.
- s) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren sektore publikoaren lan- eta kudeaketa-prozesuak berritzeko, sinplifikatzeko, arintzeko eta hobetzeko plan eta proiektu korporatiboak egitea, koordinatzea eta bultzatzea.
- t) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak landutako edo zaindutako informazioa jendearen eskura jartzea, berrerabiltzeko, Sektore Publikoko Informazioa Berrerabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aplikatuz.
- u) Datu irekiak berrerabiltzeko kultura bultzatzea eta sustatzea.
- v) Administrazio elektronikoaren behatoki gisa jardungo du, Euskadiko administrazio elektronikoaren egoera aztertzeko eta hedatzeko, saileko estatistika-organoarekin koordinatuta.

22. artikulua.– Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan aipatzen diren eskumenez gainera:

- a) Obren, horniduren eta zerbitzuen kontratazioaren arrazionalizazio teknikoaren proposatzea, bai eta obren, horniduren eta zerbitzuen kontratazio zentralizatuaren deklarazioa prestatzeko dokumentazioa lantzen esku hartzea ere, hala eskatzen zaionean, eta horretarako eratuko den kontratazio-mahaiaren parte hartzea.

- b) Kudeaketa bateratuko higiezinetan:
- Langileen lan-espazioak modernizatzea, jarduera-tipologiaren eta lan-modalitate berrien arabera, eta arreta berezia jartzea espazio irekietan eta lankidetzaguneetan.
 - Herritarrei arreta emateko guneak modernizatzea, Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan, kalitatezko zerbitzuak eta zerbitzu pertsonalizatuak emateko.
- c) Kudeaketa bateratuko higiezinetan egin beharreko obrei dagokienez:
- Obren planek eta haien garapen-programek bete beharreko arauak finkatzea kudeaketa bateratuko higiezinetan, diseinuari eta kalitateari dagokienez, bai eta higiezin horien erabilera-estandarrak, azalera eta erosotasun-baldintzak ezartzea ere.
 - Dagozkion proiektuak idaztea, kontratuak prestatzeko administrazio-jarduerak gauzatzea, obren burutzapena zuzentzea eta beharrezko jarduerak egitea ziurtagiriak ordaintzeko eta obrak ordaintzeko, hartzeko eta likidatzeko.
 - Kontratazio-organoak behar dituen laguntza teknikoko eta materialeko egiteko guztiak betetzea.
 - Zerbitzu espezifiko gisa jardutea proiektuen ikuskapena, ikuskapen teknikoa eta kalitate-kontrola eta ziurtagiriaren jarraipena egiteko, kontratazio-arloko indarreko araudian xedatutakoaren arabera.
- d) Kudeaketa bateratuko higiezinak eta bertako instalazioak mantentzea; energiaren eta eraikin horien komunikazio-sistemak kudeatzea; halaber, oinarri teknikoak eta eskaintzei buruzko azterlanak lantzea, mantentze horiek kontratatu behar badira, baita horiek gauzatu, ordaindu, hartu eta likidatzeari dagozkienak ere.
- e) Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea eta hornitzea, kudeaketa bateratuko higiezinetarako badira.
- f) Kudeaketa bateratuko higiezinetan oinplano-espazioen banaketa eta areto komunak eta antzeko beste instalazio batzuen erabilera antolatzea eta kudeatzea, bai eta instalazioen segurtasunari buruzko alderdiak kudeatzea ere.
- g) Biltegi zentralizatuak kudeatzea.
- h) Kudeaketa bateratuko higiezinetan sortutako hondakinen bilketa eta tratamendua planifikatzea eta kudeatzea.
- i) Argitalpen Zerbitzu Nagusia zuzentzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren organismo autonomoen argitaratze-jarduerari buruzko irailaren 25eko 135/2018 Dekretuan sailari esleitutako argitaratze-arloko eginkizunak betetzea, 9. eta 10. artikuluetan adierazitakoak izan ezik.
- j) Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Artxibo Sistemaren gaineko eginkizunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearen ekainaren 23ko 5/2022 Legean ezarritakoaren arabera, bai eta dokumentazio orokorreko zerbitzua ematea ere.
- k) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika definitzea eta eguneratzea, Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan, eta Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren eta Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2016ko irailaren 27ko Aginduan ezarritako auditoriak gauzatzea (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko dokumentu elektronikoak kudeatzeko politika onartzen da).

2024ko azaroaren 11, astelehena

l) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren liburutegi-sistema planifikatu, zuzendu eta gainbegiratzea, eta liburutegiak kudeatzeko informatika-programa ezartzea, bai eta Liburutegi Nagusiaren zerbitzuak ematea ere.

m) Honako zerbitzu hauek era zentralizatuan kudeatzea: posta, mezularitza, eskutitzen frankeoak, egunkariak erostea, erreprografia, inprenta eta antzeko zerbitzuak.

n) Administrazio-ko Ibilgailuen Ataleko zerbitzuak eta ibilgailuak antolatzea, kudeatzea eta administratzea.

o) Herritarrak eta Administrazioaren kanpoko eta barruko langileak Jaurlaritzaren egoitza nagusian hartzea eta kudeatzea.

p) Kudeaketa bateratuko higiezinetan segurtasunari buruzko alderdiak kudeatzea, hargatik eragotzi gabe Segurtasun Sailaren eskumenak.

q) Jaurlaritzaren zerbitzu zentraletako jantoki-zerbitzua kudeatzea, bai eta hango langileak eta instalazioak ere.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ordezkapen-araubidea.

Saileko sailburuordeen edo zuzendarien postuak hutsik egonez gero edo absente edo gaixorik badaude, haien eskumenak, egoera hori gertatu baino lehen eskuordetu ez badira, honela beteko dira:

a) Sailburuordetzei esleitutako eskumenak sailburuordetza horietako zuzendariek beteko dituzte, egiturako hurrenkeraren arabera.

b) Zuzendaritzei esleitutako eskumenak dagokion sailburuordetzako zuzendariek beteko dituzte, egiturako hurrenkeraren arabera; hau da, egituran aurre-aurretik dagoenari egokituko zaio dena delako zuzendaria ordezkatzea, eta lehenengo zuzendaria sailburuordeak ordezkatuko du. Horiek ezin badute, hierarkikoki gain-gainetik dagoen hurrenak ordezkatuko ditu, hurrengo apartatuan xedatzen den kasuan izan ezik.

c) Zuzenean sailburuaren mende dauden zuzendaritzei esleitutako eskumenak zuzendaritza horiek beteko dituzte, egituran agertzen diren hurrenkera berean.

d) Aurreko arauak nahikoa ez direnetan, gainetik dagoen hurrengo administrazio-organoak erabakitzen duenak beteko ditu administrazio-organoaren eskumenak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.

Zerbitzu Zuzendaritzak administrazio-laguntza eta -babesa emango dizkio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari, hark hala eskatuz gero, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 14. artikulua hainbat arlotan (langileak, kontratazioa, bitarteko material eta informatikoak eskuratzea eta kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa) esleitzen dizkion eskumenez baliatzeko, betiere Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 13.2 artikuluan xedatutako bermea betetzeko, eta bat etorri batzorde horren antolamenduaren eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Legelari-laguntza Autogobernu Zuzendaritzari.

Autogobernu Zuzendaritzak organikoki atxikita dauzka Eusko Jaurlaritzako legelarien dotazioak, eta Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako dotazioen laguntza ere izan dezake. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Zentraleko kide izatea bermatu beharko da, ondorio guztiekin eta berdinekin, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 17. artikulua ematen duen ahalmenaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Aribidean dauden espedienteak izapidetzea.

Dekretu honetan ezarri diren organoek izapidetuko eta ebatziko dituzte aribidean dauden espedienteak, kasuan kasuko gaiaren arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arauak indargabetzea.

Indargabetuta geratzen dira dekretu honen aurka egiten duten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, 8/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa, salbu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren datuak babesteko ordezkariaren izendapenari eta egitekoei buruzko erregulazioa, maiatzaren 22ko 81/2018 Dekretuaren bidez ezarria. Dekretu horren bidez, aldatu egin zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 29an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.